

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jauregi Zabala

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1921-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Urkizuko Etxe Oneta baserrian jaioa da Maria. Urkizuko herri eskolan ibili zen errepublika garaian, eta ondorenean Tolosako "enseñantzatan" 16 urte bete arte. Ahizpa bat zuen, zaharragoa, eta berak etxeko martxa eraman behar izan zuen. Bi anaia ere bazituen, zaharragoak, baina haiek gerrara joan behar izan zuten soldadu. Mariari ondorioz, soroko lana eta ganaduaren zaintza egokitu zitzaizkion gehienbat. Gerra bukatu zenean, Tolosako Gorrotxategi dendan egin zuen lan sei urtez. Handik etxera itzuli zen, eta berehala ezkondu zen, Urkizu Gainekoa baserrira. Han bizi izan da geroztik.

Zintak

TOL-018

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-04-09
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Urkizuko eskolako oroitzapenak

- **Erref:** TOL-018/006
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Errepublika garaia bizi zuen Mariak; Urkizuko eskolan eta Tolosako Enseñantzatan ikasi zuen. Urkizuko eskola nolakoa zen aipatzen du: apaiza zen maisua, euskaraz erakusten zuen, zer ikasten zuten... Maisu bati ikasleek

beldurra zioten eta piper egiten zuten eskolatik; amona konturatzen zen noiz ez ziren joaten eskolara.</p>

Transkripzioa

- Nola dituzu gogoan gerra aurreko kontuk? Ze bizimodu-klase o...
- Gerra aurreti o ondoren?
- Gerra aurreti.
- A! Gerra aurretiken, ba, egie esan, eskola´re bagendun. Bai. Enseyanzetan Tolosan ibili giñen. Aurrena, hemen. Ta gero, ordun, garai hartan, euskera o zea bakarrik ikasten gendun. Ta gero, Enseyanzetan, nere... denpora pixka bat in nun; han erderaz ta pixka bat han ikasi gendun.
- Ordun, aurrena, hemen egoten zan herriko eskola o auzokoa o...
- Bai, hori da. Bai.
- Nun izaten zan?
- Hor, eskolan bertan. Beno... Elizan... elizak beak dauka eskola, beheran.
- A bai?
- Baai! [...] habitazioa´re konpleto. Ta mojak udaran mojak hor egoten die.
- Ordun... Ura nahi dezu?
- Ez, oain utzizu. Gutxi eaten det; ude gehio ean behar nula esaten die, ta bai, arrazoa. Eta esan detena, ba...
- Aurrena herriko eskolan.
- Bai.
- Ta ze eskola klase izaten zan hoi?
- A, euskeraz oso... euskerazkoa, e. Gaiñera, gero apaizak ematen zuen eskola. Ordun bea... ordun. Eta apaiza zan, gaiñera, don Felix, oso euskadun... [aldekoa]. Azkoiti o horkoa izan behar zuen, Azkoiti o Azpeiti o [hor aldea]. Eta euskeraz ta, beno, euskera´re... oso euskaltzalea zan ta eskola´re ematen asko balio zuna. Eta gero hura...
- Ze ematen zizuen?
- Nola esango dizut, ba, beti bezalaxe: aurrena letzen, gero “multiplicar”, “dividir”, “sumar”... ta hoik denak. Eskola oso ondo erakusten zuen, e? [Zeuden] apaizak, o... Oin, apaizak hemen, ba, bost urte o hola itten zittuenen kanbiatu itten zien. Eta apez bat kanbiatu zuen, hor beheko... Hernani aldekoa, horkoa zan. Eta zan oso jenio bizikoa o ez dakit, ba, umek behintzat gogor hartzen zittuna, [...] hartzen zittuna. Eta hura zan garaien, ikaraz eskolaa juteko egoten giñen. Ta bat eo beste piper ere bai iten gendun; ein ein gendun.
- Nola iten zenduen hoi?
- Piper... ba, gu hor... etxetik etorri ta gero hor, bason, hor egon denborapasa; eta gero hamabitan etxea joten giñen. Baiño gure amona zanak esaten ziun: “Bai, zuek gaur ez zeate eskolaa jun, e”. Harek antzematen ziun hola joten ez giñenen.
- Bai? Nola antzematen zizuen?
- Ordue baiño leheno joten giñelako. Antzematen ziun, bai. Amona bizkorra baizan, bai. Eta apaizak [holaxe] kanbiatu [...], ba, diferentzi haundiko apaizak: batzuk asko balio zuenak eskola ematen; ta beste batzuk, berriz, umek gogorregi hartzen zittulako o ez dakit zer, behintzat eskolaa jun nahi ezta jartzen giñen, zeatutzen giñen.
- Ikara ematen zizuen?
- Bai. Ikara, bai. Gogorregi hartzen zittun umek.
- Baiño euskeraz ematen zizuen?
- Bai, dena euskeraz, bai. Bai, erderaz guk ikasi gendun beheran, zean, Enseyanzetan.
- Ze zuek zenbat urtera arte ibiliko ziiñaten herriko eskolan?

- Herriko eskolan hemen? Ba, [zazpi] urte bai, zeatiken hasiko giñen... zortzin bat urtekin o? Ta zortzi ya... bai, hamaika-hamabi urte arte ibiliko giñen eskolan, bai.

2. Tolosako Enseñanza ikasten ibilia

- **Erref:** TOL-018/009
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:14:56. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Tolosako Enseñanza ikasi zuenean, bera bakarrik joaten zen; joan-etorria oinez egiten zuen. Ordurako ondo ikasia zegoen Urkizuko eskolan. Etxean ahizpa zaharrenak bakarrik zekien erdaraz, eta hari esker elkar ulertzen ziren soldaduekin gerra garaian.</p>

Transkripzioa

- Ordun, Enseñantzatan, ze juten ziñaten bi ahizpak?
- Ez, bi bakarrik ordun juten nitzen. Bai. Hemendiken ya bakarrik.
- Nolatan erabaki zuen zuen gurasok harea bialtzia?
- Ba, eskola gustatzen zitzaien, eskola ematea, ta. Bai. Jun ta etorri... Jun ta etorri oiñez itten nun. Gero bazkaldu hanTolosako ezaun bat bagendun han, beak denda zaukena, eta handik ibiltzen giñen, eta han bazkaldu itten gendun. Bazkaldu eta gero atzera illuntzen, illuntzen o atsalden, berriz etxea, eskolatik irtetzen giñenen.
- Ta, klaro, Urkizutik atea, sekula kastillanoik aitu be iya-iya, ta derrepente moja bat erderaz klasea ematen, gogorra izango zan, ba, hasieran...
- Bai, beno, ba! Ze esango dizut /esangoizut/? Ordun ya hamen eskola bastante ikasita genden. Gero harea jun giñenen mojataa´re han “dividir”- en nik bezin ondo iñok ez zun itten “dividir”, nik bezin azkar ta ondo, han Enseñanzetan´e. Hemen ondo... eskola ondo... apaiza batek oso ondo erakusten zun eskola, e!
- Ta zuk, orduan, kastillanoa aitu zendun noizbait´e?
- Aitu bai, baiño hitz ein ez. Ya... Gero hemen egon zien, gerra-denboran, egon zien militarrek o, ez dakit naparrak o zer zien, kanpokok. Eta gure ahizpa zaharrenak haretzek zaukan... erderaz zekin, eta hari eskerrak. Gaiñantzen, [denak] erderaz ez zekienak. Ta haik´e militar hoiri hitz eitteko, ba, ahizpa zaharrena arreglatzen zan. Eskerrak harek bazaukan eskola. [Haura]´re Tolosan, ez dakit, hura´re Enseñanza o ez dakit nun ibiliko zan; behintzat eskolan ibili emen zan pixka bat. Ta orduan ikasi emen zuen erderaz. Han euskeraz ez zekiela-o zea hartan, behintzat ikasi zuen, ta hari eskerrak. Gaiñantzen, hemen iñok ez erderaz. Bueno...! dana euskeraz. Ta lehen esan dizutena... beno...
- Ordun, rekuerto ona dezu zuk Enseñantzatako garaiana?
- Bai, bai, bai. Gaiñera, orduko hemendik juteko ya esaten dizut, ba, dividir ta hoik danak ondo ikasita genden ya. Oain, bakar-bakarrik hoixe, ez giñekiula erderaz; euskeraz bakarrik.
- Ta horreatik parre o iten zizuen?
- Ez, ez, ez. Mojatan errespeto haundia.

3. Enseyanzako uniforme

- **Erref:** TOL-018/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Enseyanzen uniforme eramatzen zuten eta nolakoa zen azaltzen du.

4. Soldaduak pastela kendu zionekoa

- **Erref:** TOL-018/015
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:26:19. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Mariak ikusi zuen nola etorri ziren soldaduak gerrako lehenengo egunean. Soldaduetako batek pastela kendu zion Mariari.

5. Soldaduekin erdaraz hizketan

- **Erref:** TOL-018/020
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:31:17. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Urkizun egon ziren soldaduekin hainbatetan hitz egiten zuten; ahizpa zaharrenak bakarrik zekien erdaraz, eta hari esker moldatzen ziren. Soldadu haiek Nafarroakoak ziren.

6. Gorrotxategiko lana

- **Erref:** TOL-018/031
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:57:51. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak

Laburpena:

Aniak gerratik itzuli zirenean, Gorrotxategi dendara joan zen lanera Maria; han 6 urte eman zituen lanean. 28 urte zituela ezkondu egin zen. Gorrotxategin zer lan egiten zituen azaltzen du. Baserriko lanen aldean, kaleko

lana errazagoa iruditzen zitzaion; baina, hala ere, kalean ere asto-lana egitea tokatu izan zitzaion.

7. Gorrotxategin zebileneko bizimodua

- **Erref:** TOL-018/033
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:02:59. **Bukatu:** 01:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak

Laburpena:

Lehen gozokiak saltzen zituzten Gorrotxategin eta Mariak behar zena baino gozoki gehiago ematen zituen. Goizetik gauera aritzen zen dendan lanean eta bertan egiten zuen lo. Goizero mezara joaten zen Maria.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com